

ARABAKO EUSKALTZAIN OSO, OHOREZKO ETA URGAZLEEK EUSKALTZAINDIAREN JAGON SAILAREKIN EGITEN DUTEN ADIERAZPENA

Guk, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleok, Euskaltzaindiaren Jagon Sailarekin batera, Euskaltzaindiaren sortze-xedeetariko bat izanik “hizkuntzaren esku-bideak zaintzea”, jendarteko iritziari, eta batez ere Arabakoari, geure, kezka bizia agertu nahi diogu, berriki egin diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak baino lehen, tartean eta gero euskararen gainean eta bereziki probintzia honetan euskara dagoen egoera dela-ta plazaratu diren zenbait aburu eta aldarrikapenengatik.

Araba, Euskal Herri osoa bezala, ez da, kultura eta hizkuntzari dagokiela, era bakarreko izakia, eta euskalduna, Aitzinateaz gero, gure kulturaren oinarritzko osagaia da.

Begibistakoa da euskara Arabak duen bere-bere hizkuntza dela. Aski da Gerardo López de Guereñuren *Toponimia Alavesa* liburua ikustea, gure probintziako euskal lekuizenen nagusigoaz jabetzeko. Duela oraindik ez 200 urte, Landazuri arabar historigileak dioskunez, 53 Hermandadeetarik 22 euskaldunak ziren. Euskarazko lehen hiztegi luzeska Gasteizen bildua da (16. mendea), eta autore ezaguneko euskarazko lehen antzerki lana arabar batek egina du (18. mendea).

Ez da hau une egokia Arabako euskararen atzerapenez luzaz aritzeko. Atzerapen hau historian zehar gertatu den lege, administrazio eta kultur prozesuak eragin du, zein hertsia zen eta herrien hizkuntz eskubideak aitortzeko uzkurra. Oroz gain 1936-39-ko gerraren ondoren izan ziren handiak kalte hauek. Halaber, ez gara aipatzen hasiko Araban euskarari eusteko eta indarberritzeko gizabanakoek eta erakundeek 1850z gero egin dituzten ahalegin guztiak, batere ez harrigarriak, kontutan hartzen badugu euskaldunak ohartuak zirela “esku-bidez berdinak eta jatorriz, hizkuntzaz, ohiturez eta interesez amankomunak” zirela, Ortiz de Zaratek bere *Compendio Foral*-en dioen bezala. Orobat luze joko luke azken ehun urteotan izan diren Arabako euskal idazleen kopuru handia aipatzeak.

Bestalde, zuzenean nahiz zeharka eñan ohi denaren aurka, agian komeni da orotaraztea arabar udalek idazkariei eta langileei euskarazko ezagupena eskatzeko historian barrena izan duten eskubidea, 1924ko urriaren 21eko Erret Dekretuaren baimenez. Gainera, Arabako Diputazioa, Euskaltzaindiaren sortzailea 1918an eta ikastola-sare baten sortzailea ere 1973an, lehena izan zen foru administrazioan erdararen eta euskararen ofizialkidetasuna agintzeko, 1977ko otsailan, hortaz, indarrean dagoen Autonomi Estatutua eta hartatik etorri diren arauak, Europa demokratiko osoan parekotasunak dituztenak, onartu baino lehenago.

Oraingo egoerari dagokiola, harrigarria da nola ahazten ohi diren zenbait datu, hala nola 1986ko erroldak dakartzanak. Datu ofizial hauen arabera. Arabako euskaldun biztanleria % 6,71 da. Honen aldamenean, erdi-euskaldunak % 16,96 dira. Beraz, lau arabarretarik bata, zuzenago zein destrebeago, euskaraz mintzatzeko gai dugu. Beste datu batzu ere ikus daitezke, Gorbeialdekoak, adibidez, non ehuneko hau % 50 baino goragoa da. Bestalde, Arabako beste udal batzutako kopuruek aski garbi adierazten dute jende gehienak elebitasunean sartu nahi duela.

Gertakari hauen aurrean, galdetu behar dugu nolatan egin eta errepika daitezkeen zenbait baieztapen, ezjakintasun edota ezinikusi nabarmenengatik ez bada. Ez da zilegi iragana eta oraina itxuraldatzea, kultur ondare bizi bati bidea hertsiaz.

Zer esanik ez, euskara ezin izan daiteke, lanpostu bat eskatzerakoan, lanbide batean edo bestean ezjakinaren edo ezgauzatasunaren estalgarri. Hala ere, ez dugu ulertzen nolatan zenbaitek onartzen duten beste hizkuntzak eskatzea eta aldi berean arbuatzen euskara eskatzea, hots, Arabako hizkuntzetariko bata eta ofizialtasuna duen hizkuntza dena.

Zein nahi den ere Euskal Herriaren barne-egitura eta zein nahi diren ere politikaren eta alderdien gorabeherak, hauek oro ez bait dagozkio Euskaltzaindian, begibistakoa da denendako interesgarria dela bi hizkuntzak elkar-bizitzea eta berdinkiro hedatu eta erabiltzea. Bere lurraldea eta bere kultura ezagutu nahi duen arabar guztiak euskarari du bitarteko utzi-ezinezkoa, ezagupen hori sakona izango bada.

Nolanahi ere, euskara batzuek eta besteek gezitzat erabiltzearen aurka gara guztiz. Euskara ez da inongo alderdi edo ideologiaren jabegoa, eta arabar guztiek beren-berentzat jo behar dute bizitzaren alor guztietan.

Gasteizen, azaroak 8, 1990

DECLARACION DE ACADEMICOS NUMERARIOS, HONORARIOS Y CORRESPONDIENTES DE ALAVA, CONJUNTAMENTE CON LA SECCION TUTELAR DE EUSKALTZAINDIA

Nosotros, miembros numerarios, honorarios y correspondientes de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, juntamente con la Sección Tutelar de esta Institución, entre cuyos fines está el “velar por los derechos de la lengua”, queremos hacer llegar a la opinión pública, y especialmente a la de Alava, nuestra honda preocupación por algunos juicios y proclamas sobre la lengua vasca, y particularmente sobre la situación del euskera en esta provincia, vertidos antes de, durante y después de las recientes elecciones al Parlamento Vasco.

Alava, como toda Euskal Herria, no es una realidad uniforme cultural y lingüísticamente, y lo vasco, desde la Antigüedad, constituye un componente fundamental de nuestra cultura.

Es obvio que el vascuence es también lengua propia de Alava. Basta hojear el libro *Toponimia Alavesa*, de Gerardo López de Guereñu, para darse cuenta del predominio de los nombres vascos de lugar en nuestra provincia. Todavía hace menos de 200 años, como nos informa el historiador alavés Landazuri, 22 de las 53 Hermandades eran vascófonas. El primer diccionario vasco de alguna extensión fue recogido en Vitoria (siglo XVI) y la primera obra vasca de teatro de autor conocido fue escrita por un alavés (siglo XVIII).

No es el momento de extenderse sobre el retroceso del euskara en Alava, retroceso causado por un proceso legislativo, administrativo y cultural restrictivo y poco abierto al reconocimiento de los derechos lingüísticos de los pueblos a lo largo de la historia, sobre todo después de la guerra de 1936-39. Tampoco vamos a mencionar todas las iniciativas individuales e institucionales para el mantenimiento y la recuperación de la lengua vasca en Alava desde 1850, iniciativas lógicas debido a la conciencia de “la identidad de derechos y de la mancomunidad de origen, de lengua, de costumbres y de intereses”, como dice el escritor Ortiz de Zárate en su *Compendio Foral*. También sería prolijo mencionar las decenas de escritores alaveses en lengua vasca de los últimos cien años.

Por otro lado, contra lo que suele afirmarse directa o indirectamente, cabe recordar que los municipios alaveses han tenido históricamente el derecho de exigir el conocimiento de la lengua vasca a secretarios y empleados, con la autorización del Real Decreto de 21 de octubre de 1924. Además, la Diputación

de Alava, cofundadora de Euskaltzaindia en 1918 y creadora en 1973 de una red de ikastolas, fue la primera en decretar la cooficialidad del castellano y del euskera en la administración foral, en febrero de 1977, antes, por tanto, de la aprobación del vigente Estatuto de Autonomía y de las normas derivadas de él, que, como se sabe, tienen abundantes paralelos en toda la Europa democrática.

Por lo que respecta a la situación actual, sorprende el olvido de datos como los aportados por el Padrón de 1986. Según estos datos oficiales, la población vascófona de Alava en su conjunto alcanza el 6,71 %, porcentaje junto al que figura otro 16,96 % correspondiente a la población semi-vascófona. Tenemos pues, casi una cuarta parte de los habitantes de Alava que puede expresarse en euskara con mayor o menor corrección. También pueden constatarse otros datos, como los de la comarca de Etribaciones del Gorbea, donde este porcentaje supera el 50 %. Por otra parte, cifras de otros municipios alaveses revelan la clara voluntad de una gran parte de la población de incorporarse al bilingüismo.

A la vista de estos hechos, hay que preguntarse cómo pueden hacerse y repetirse algunas afirmaciones, si no es por desconocimiento o desapego manifiestos. No es lícito tergiversar el pasado y el presente, cerrando el paso a una parte del patrimonio cultural vivo.

Ciertamente, el conocimiento de la lengua vasca no puede usarse como tapadera de ignorancia e incompetencia en una u otra profesión a la hora de solicitar un empleo. Sin embargo, no entendemos cómo algunos admiten la exigencia de otros idiomas, y al mismo tiempo rechazan el requisito del euskera, una de las dos lenguas oficiales de Alava y con consideración de idioma oficial.

Independientemente de la constitución interna de Euskal Herria y de los avatares de la política y los partidos, cuestiones estas ajenas a la labor de esta Real Academia de la Lengua, es evidente el interés general derivado de la convivencia de ambas lenguas y de su extensión y empleo equitativos. Todo alavés que quiera conocer su tierra y su cultura tiene en la lengua vasca un medio imprescindible para profundizar en este conocimiento.

En cualquier caso, nos manifestamos totalmente en contra de la utilización del euskara como arma arrojada por unos y otros. La lengua vasca no es privativa de ningún partido o ideología y ha de ser considerada como propia por todos los alaveses en todas las esferas de la vida.

JEAN HARITSCHELHAR	KEPA ENBEITA
JUAN MARIA LEKUONA	PATXI GOENAGA
JOSE MARIA SATRUSTEGI	JOSE MARI LARRARTE
JOSE ANTONIO ARANA	JOSE LUIS LIZUNDIA
ENDRIKE KNÖRR	PELI MARTIN LATORRE
PIERRE CHARRITTON	PEDRO PUJANA
GERARDO LOPEZ DE GUEREÑU	MANUEL M. RUIZ URRESTARAZU
FEDERICO BARRENENGOA	PEDRO SANCRISTOVAL
ISIDRO BAZTARRIKA	PATXI URIBARREN
ANTONIO BERRUETA	JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL

Vitoria-Gasteiz, 8 de noviembre de 1990